



## Su festaren hasiera

**OHITURA** ▶ Urteroko ohiturari jarraituz, eskualdeko hainbat tokitan piztuko dira gaur iluntzean San Joan suak

**JAIK** ▶ Abaltzisketan, Belauntzan eta Tolosan herriko jaien hasiera izango da; igandera bitarte luzatuko dira ▶ 2-5



Leku askotan San Joan sua prestatzen aritu dira egun hauetan. Argazkian, San Blas auzoan. JOXEMI SAIZAR



Urteroko ohitura berrituko da Tolosako Santa Maria plazan. AITOR ELDUAIEN

**VILLABONA** ▶

Euskararen erabilerak beherantz egin du

Helduen %27ak egiten du bakarrik ▶ 6

**ZABALA**

**KAFEAK**

**ONDO PASA SANJOANETAN!**

Nafarroa etorbidea, 2 **TOLOSA** Tlf.: 943 65 47 95  
Nagusi enparantza, 2 **ORDIZIA** Tlf.: 943 88 29 88

**Adi LEITZAR eta ARESOARRAK!**

HITZA etxean jasotzen jarraitu nahi baduzu, egin zaitez harpidedun!

**5** egun geratzen dira!

**943 30 43 46**

astegunetan  
(08:30etik 20:30era)  
larunbatetan  
(09:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko  
eta leitzaldeko

**hitza**

TOLOSALDEA ▶ SAN JOAN JAIEN HASIERA

# San Joan suaren argitasunak herri askotako festa eta ekitaldiei emango die bidea

Albatzisketan eta Belauntzan jaiak egingo dituzte; Alegian, Amasan, Anoetan, Areson, Leitzan, Villabonan eta Zizurkilen ere ekitaldiak izango dira



Eskualdeko herri askotan piztuko dute bihar gauen San Joan sua; askotan, herriko jaien hasieraren iragarpena izango da, gainera. MAIDER JAUREGI

D.GIBELALDE/O.ESKIXABEL

Udan murgiltzearekin batera, tradizioari jarraiki, makina bat baserri, auzo eta kale bazterretan sua piztuko dute gaur gauean. Baina ez hori bakarrik. Suaren inguruan salto egiteaz gain, kantuak, dantzak, afariak... izango dira, betiere herritarrek biltzea aitzaki har-

tuta. Suaren argitasunak alaitasun eta egun zorionsuei emango die bidea.

Gaur hasi eta igandera bitarte ekitaldi ugari antolatatu ditu Abaltzisketako jai batzordeak. San Joan sua piztearekin batera hasiko dira herriko jaiak; haren inguruan dantza emanaldia eskainiko dute, ohi bezala, herriko gazteek: «Urteroko

ohitura denez, entsegu gutxi egiten ditugu; atzo, esaterako, txistulariekin batera egin genuen lehenengo entsegua; gaur, emanaldiaren aurretik beste pare bat entsegu eta dantzatzera», azaldu du Iñaki Artolak, jai batzordeko kideak.

Berezitasunez josia dago, bestalde, Abaltzisketako jaietako egitaraua. Musika taldeen

atsedenaldietan egingo dituzte ekitaldi berezi gehienak: «Atsedenaldietan jende asko etxeratzen zela ikusita, tarte hori betetzea erabaki genuen», azaldu du Artolak. Horrela, gaur, zurito apustua egingo dute; etzi, txerrikume harrapaketa eta etzidamu txinga apustua. Azken hori ez da izango jaietako apustu bakarra. Igan-

dean, ekainaren 27an, Abaltzisketatik Amezetara bi kilometro bidean bi lagun artekoko norgehiagoka izango da; bata patinetan irtengo da eta, bestea, bizikletan. Azken hau beranduago irtengo da. Ondoren, zaldi karreran ere apustuak egiteko parada izango dute gerturatsen direnek.

## Egitarau oparoak

Belauntzan, bi egitarau izango dira, bata Udalak antolatua, eta bestea Jai Alternatiboen Batzordeak antolatutakoa. Egitarau ofizialari dagokionez, gaur, ohi bezala, San Joan sua izango da. Antolatzaileek «herritar eta gustu guztientzako laguntzentzat» antolatu nahi izan dute. Aurreko urteetan legez, bertsolariak, trikitilariak eta herri kirolak ez dira faltako. Ostiralean haurrentzat pailazoak eta Eriz magoa izango dira. «Mago eta pailazo onak eta gustagarriak izango direlakoan aukeratu ditugu». Larunbatean, aipatzekoa da sega apustua izango dela herri kirolen artean. «Aspaldian ez da segalari-rik izan herriko festetan».

Bestalde, Belauntzako Jai Alternatiboetako Batzordeak ostiral eta larunbaterako prestatu du egitaraua. «Udaletxea lapurtua izan delako erabaki dugu gure festak antolatzea». Ostiralean txupinazoa izango da eta ondoren herri afaria. Eguraldiaren arabera, Gaztetxe aurrean edo frontoian izango da afaria. Menua honakoa izango da: zainzuriak, entsaladilla, txuleta entsaladarekin, pos-trea, kafea, kopa eta purua. Prezioa 20 eurokoa da; jubilatua eta langabetuentzat 15 euro. Afariaren ondoren txinga eta toka txapelketak izango dira. Larunbatean, besteak beste, frontenis eta tortila txapelketa eta jolasak izango dira. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete «lagundu diguten guztiei».

## iragarki laburrak ▶

**Pablo Gorosabel, 48**  
1. planta - 7. bulegoa  
29400 TOLOSA  
Tel. eta Fax: 943 65 55 87  
mug: 649 368 994

**Aia.** Baserria salgai, bi solairukoa, bakoitza 250 m<sup>2</sup>-koa, gustu handiz berritua, 61.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin hornitua. Bi etxebizitza egiteko aukera.  
**Aizarnazabal.** 50.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai.  
**Alegia.** Berrikuntza behar duen etxebizitza salgai; hirugarren pisua, garajea eta trastelekua.  
**Anoeta.** Etxebizitza eta garajeak, eraikuntza berriak, azken aukerak.  
**Anoeta.** 370 m<sup>2</sup>-ko 2 pabiloi modulotan salgai, berriak.  
**Belauntza.** 1.060 m<sup>2</sup>-ko pabiloia, erabat garbia, argitsua eta garbiarekin.  
**Belauntza.** 264 m<sup>2</sup>-ko eta 275 m<sup>2</sup>-

ko pabiloi berriak. Estreinatzeko.  
**Donostia.** Rodil zeharkalean 42 m<sup>2</sup>-ko apartamentu berritua, erabat kanpoaldera. 234.400 euro.  
**Gaintza (Nafarroa).** Hiru solairuko baserria salgai, berrituko.  
**Ibarra.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Berrituko. Lehenengo pisua. Kanpoaldera.  
**Ibarra.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Egoera onean. Altzariez hornitua. 198.335 euro.  
**Ibarra.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Berrituko; lehenengo pisua.  
**Kanpoaldera.** Ibarra. 75 m<sup>2</sup>-ko pabiloia salgai, 2.500 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin nekazaritzarako egokia.

**Irura.** Beheko solairuan dagoen apartamentua lorategiarekin.  
**Itsasondo.** Eraikuntza berriko etxebizitzak; duplexa eta lorategia beheko solairuan.  
**Legorreta.** 1.000 m<sup>2</sup>-ko pabiloia salgai, 5.000 m<sup>2</sup> dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.  
**Lizartza.** Solairuko 130 m<sup>2</sup> dituen hiru solairuko baserri berritua.  
**Lizartza.** 14.000 m<sup>2</sup>-ko pabiloia salgai. Eraikuntza berrikoak.  
**Lizartza.** Berrikuntza behar duen baserria. 21.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila.  
**Matxinbenta.** Berritu beharreko lau solairuko etxebizitza.  
**Segura.** 60 eta 90 m<sup>2</sup>-ko 2

etxebizitza salgai, berrituko.  
**Tolosa.** Etxe atxikia. 180m<sup>2</sup>-koa, lau gela, bainugela eta komuna. Altzariz hornitutako sukaldea.  
**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 140m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Garajea aukeran.  
**Tolosa.** Erremontari kalean berrituta dagoen etxebizitza salgai, 2 gela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Kanpoaldera.  
**Tolosa.** Pablo Gorosabel kalean, garaje ibxia salgai. 16 m<sup>2</sup>-koa.  
**Tolosa.** 180 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza atxikia, 4 gelakoa, bainugela eta altzariz hornitutako sukaldea.  
**Jaca.** Hiri erdian, hiru gelakoa, bi bainugela, egongela eta sukaldea; garajearekin.

## SAN JUAN JAIAK ▶ EGITARAUAK ETA EKITALDIAK

## ABALTZISKETA

## Gaur.

21:30. San Joan sua. Ondoren San Joan dantza eta *Soka dantza* herriko gazteen eskutik.

22:30. Asto karrera.

23:30. Nekin taldea eta Imuntzo eta Belokiren saioa. Atsedendian, zurito apustua.

## Bihar.

11:00. Meza nagusia.

Ondoren, jubilatuentzako hamaiketako.

11:30. II. Plater Tiraketa.

17:30. Pilota partidak.

Ondoren bertso saioa Larrañaga eta Narbaizarekin.

22:30. Erromeria Epelde eta Larrañaga trikitilariekin.

## Etzi.

16:30. Ume jolasak herriko gaztekoentzat. Ondoren, txokolatada eta trikitixa.

20:30. Herri afaria. Ondoren, erromeria Etxabe anaiekin.

Atsedendian, Txerrikume harropaketa pilotalekuan.

Ekainak 26 (larunbata).

16:00. II. Mus Txapelketa.

21:00. Sagardo dastaketa.

23:30. Triki ta ke taldea.

Atsedendian, txinga apustua.

Ekainak 27 (igandea).

17:00. Apustua; lagun bat patinetan txirriindulari baten aurka.

17:00. Ondoren, zaldi karrera.

18:30. Mugerza eta Otaegi aizkolariak herriko plazan.

22:30. Izer eta Alabier.

## ALEGIA

## Gaur.

20:00. Txintxarri abesbatzak,

txistulari taldeak, dantza taldeak eta Tolosako Musika Eskolako akordeoilari taldeak *Bordondantza* eskainiko dute plazan. Ondoren, sua piztuko dute.

## Bihar.

20:00. Zahagi ardoa plazan.

## AMASA

## Gaur.

20:30. Herri afaria plazan.

Ondoren, sua.

## ANOETA

## (EGITARAU OFIZIALA)

## Gaur.

18:00. Buruhandi eta erraldoien kalejira.

19:00. Udalak ardo eta gailetak eskainiko ditu udaletxeko arkupeetan.

20:30. Herri afaria izango da plazan.

22:45. Loatzu Musika Eskolako txistulariakin.

23:00. Suaren inguruan San Joan kantuak, San Joan zortziko dantza eta erromeria.

## Bihar.

11:00. Kalejira Anoeta txistulariakin.

12:00. Meza udal dantzariakin eta txistulariakin.

13:30. Herriko jubilatuen bazkaria eta dantzaldia Bentaldea bodegoian.

## ANOETA

## (KONTZENTRAZIOA)

## Gaur.

22:45. Kontzentrazioa Festa Alternatiboen Batzordeak

deituta San Joan suaren inguruan.

## ARESO

## Gaur.

21:00. Afaria haurrentzat guraso elkarteak eramana. Plazan.

22:00. San Joan sua.

## BELAUNTZA (EGITARAU OFIZIALA)

## Gaur.

21:00. San Joan sua.

Ilunabarrean, erromeria goizaldera arte Pari trikitilariakin.

## Bihar.

11:00. Meza nagusia. Jarraian, txistulariak, eta ondoren hamaiketako tabernan.

12:00-14:00. Herritarren eskulan erakusketa Kultur Etxean.

Jarraian. Jokin Sorozabal eta Millan Telleria bertsolariak.

18:00. Pilota partida frontoian: Retegi II.a-Oteiza eta Beloso-Jauregi.

Ondoren. Bertsolarien bigarren saioa.

Jarraian. Edurne eta Uxune trikitilariak.

23:00. Erromeria goizaldera arte Edurne eta Uxune trikitilariakin.

## Etzi.

12:00-14:00. Eskulan erakusketa Kultur Etxean.

13:00. Mus eta puntu txapelketa.

16:30. Haur jolasak pailazoekin alaiturik eta Eriz magoa.

21:00. Herri afaria, Oskar Estanga eta Jaione Olazabal musikaren *Berriketan* emanaldiarekin batera.

Ondoren. Pagadi anaia trikitilariak goizaldera arte.

Ekainak 26 (larunbata).

12:00-14:00. Eskulan erakusketa Kultur Etxean.

13:00. Mus eta puntu finalak.

18:00. Segalariak, aizkolariak eta harrijasotzailea. Ondoren, txinga, toka eta bolo txapelketa.

Jarraian. Epelde eta Larrañaga trikitilariak.

21:00. Kostila jatea barrikotearekin.

Jarraian. Epelde eta Larrañagarekin erromeria.

## BELAUNTZA (JAI ALTERNATIBOAK)

## Etzi.

21:00. Txupinazoa eta ondoren herri afaria. Afalostean txinga eta toka txapelketa.

Ekainak 26 (larunbata).

11:00. Hamaiketako eta ondoren mus eta puntu txapelketa.

16:00. Haur jolasak.

18:00. Frontenis txapelketa.

20:00. Tortila txapelketa.

21:00. Gazte jolasak.

## LEITZA

## Gaur.

18:00. Umeen *Ingurutxo* plazan. Ondoren, txistorra otartekoak freskagarriekin.

21:00. Herri afaria herriko plazan.

23:00. San Joan sua.

00:00. Incansables txaranga.

## TOLOSA

## Gaur.

16:00. Berazubin, atletismoa.

III. Gazte Kopa, Roberto Cabrejas I. Memoriaia.

17:00. Txistularien kalejira.

17:30. Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroekin, Plaza Berritik.

18:00. Incansables txaranga.

18:00. Suziria, udaletxeko balkoitik, eta kanpai hotsa, jaien hasiera iragartzeko. Plaza Zaharrean, haur ikuskizuna Gorringo taldearen eskutik.

18:30. Tolosako margolarien XXXVIII. Erakusketaren inaugurazioa, Txinpartan.

19:00. Igarondon Squash Txapelketaren finala: XIV. San Joan Saria.

19:30. Udalbatza Plaza Zaharretik abiatuko da Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otowitzetan parte hartzeko.

20:00. Djambutu Thiossane musika taldearen kalejira.

22:00. San Joan sua, Santa Maria plazan. Ondoren, Udaberri Dantzari Taldea eta Tolosako Musika Bandak jardungo dute. Jarraian, Tolosako Orfeoaren kantaldia.

23:30. Su festak, Pirotecnia Zaragozana. Ondoren, Euskal Herria plazan Djambutu Thiossane taldea.

## ZIZURKIL

## Gaur.

20:00. San Joan sua Joxe Arregi plazan eta udaletxe aurrean.

## LEITZALDEA ▶ SAN JOAN BEZPERA

## ‘San Joan bezpera, sarna fuera’ esanez, hiru salto su gaintetik

Iluntzean aforiak egingo dituzte Leitzan eta Areson

## JAIONE ASTIBIA

Gaurkoa gau berezia dela dio edozeinek galdera eginez gero. Baina hori baieztatzen arrazoi oso desberdinak erabiltzen dituzte batzuk zein besteek: udaren etorrera eta horrekin oporrak iritsi diren seinalea ikasle jendearentzat, beste festa

egun bat gehiago beste batzuentzat, sorginkeria kutsuz jantzitako gaua besteentzat... Ospakizun berezi samarra bada ezin uka daiteke: herri guztietan San Joan sua bizten da gauerdian inguru horretan eta, askotan, gaintetik salto egiten da.

Gauerdian bizten den sua-

ren gaintetik salto eginez hasien da eguna. Garai bateko sineskeriekin bat heldu direnek, gainera, hiru salto eginen dituzte, urte guztian osasun ona izateko eskatuz, eta herriko hainbat jenderi galdegin eta adierazi dutenez, honako esanera hau oihukatuz: *San Joan bezpera, sarna fuera!*



Lehen sua ipuruz egiten bazen ere, orain, kartzoi. JAIONE ASTIBIA

Edozein moduz, festa horretan modu batean edo bestean parte hartzen duen guztiak, lagun eta ezagunekin egoteko baliatuko du gaua lehen or-

duetatik hasita eta mahaiaren bueltan gainera, ia betiko ohi-turari jarraituz: Leitzan mila lagun inguru bilduko dira herriko plazan.

**HITZA**, eskualdeko plaza  
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

**661 678 818**  
Toki aproposa iragartzeko

TOLOSA ▶ SAN JOAN SUA

# Urteko gaurik motzenezan

San Joan bezperako sua piztuko dute 22:00etatik aurrera Santa Maria plazan; Tolosako Udal Musika Bandak, Udaberri Dantzari Taldeak eta Tolosako Orfeoiaik ohiko ikuskizuna eskainiko dute gaurkoan

### IRATXE ETXEBESTE

Urteko gaurik motzenezan izango da gaurkoa. San Joan bezpera. Usadioak hala dio: San Joan suak igurtitu txarrak usadiozko balio duela. Dimean alferrik ziren tramankuluak pilan jarri eta erre egiten zizuten garai batean. Egun ere plaitzen dituzte sua ahalik eta handien izan dadin. Batzuk su garren gainean egiten dute sailto, eta besteak aski dute haien begirtze arekin. Eskualdeko herri guztietan bezala, Tolosan ere modu berezian ospatuko dute gaur San Joan bezpera.

22:00etan hasiko da San Joan sua laguntzen duen ekitaldia. Ordu horretan San Joan martxa joko du Tolosako Udal Musika Bandak oholtra gaitetik, eta herriko musikariek dotu hori jotzen ari diren bitartean piztuko dute sua Santa Mariako plazan. Tolosako Udalako agintariek bertan direla, bertarrek suaren inguruan sailto egiteko aukera izango dute handik aurrera otorduak edo eta behin sua izaituta dagonean Udaberri Dantzari Taldearen emanaldia hasiko da. San Joan zortzoko jo ondoren, kalez kale ibiltzera abiatuko da Tolosako Musika Banda.

Zortzi dantza eskainiko dituzte Udaberri neskak eta mutilak 22:25ean hasita. *Urdain, Agurra, Zinta dantza, Broketa dantza, Mexi handi, Urtai Txiki dantza, Jorrai dantza* eta *San Joan dantza*, hain zuzen ere Txistulariek jotako dot.



Jende ugari bilduko da gaur San Joan suaren bueltan; argazkian, lasio ekitaldia. «eta.coucou»

nuen menera, sanjoanetako ohiokak dira dantzazko dituzten guztiak, eta horietako batzuk, gainera, egun horretan bainik ere dituzte eskaintzen.

Udaberri Dantzari Taldeak emanaldia bukatu bezain laster Tolosako Orfeoia kantantuko du, ohiko legez. 23:00ak inguruan hasiko da abesbatza-ren saioa, eta hiru pieza kantatuko ditu Sanjoan zortzokoaren aurretik: B. Zapurrainen *Txantxo Piperrri (Himno final)*, S. Emaolaren *Dringilindron* eta Javier Bello Porturen *Homenaje a Iparagirre*. Azkenik, Eduardo Mokoroaren *Sanjoan zortzoko* kantatuko du Tolosako Orfeoia, eta azken kanta horretarako publikoaren laguntza izango du gaur ere.

Antolatzaiek adieraz dute, 23:30ak aldera amaituko da, ondo idean. San Joan sua ospatzeko jaialdia, Euskal Telebistatik zuzeneko emango du aurtengoa San Joan sua Tolosako. San Joan bezperako ekitaldi nagusiaren ondoren su festan, lehenengo bilduma eskainiko dute Zumardi Txikiak; Proteccion Zaragozaren eskainiko izango dira su artifizialak gaur gauean. Egunari amaiera emateko, Afrikatik etortzako talde batek jardungo du Euskal Herria plazan, Senegalgo Djambutu Thioassane taldea arko da, izan ere, kontzertuan gauerdik aurrera.

Urteko egunik luzeaz gozatu nahi duenak badu, hortaz, bezperan festan besteaitzariak. Dira rola.

TOLOSA ▶ ATLETISMO

## Atletismo topaketa handia Berazubín

Roberto Cabrejasen I. Oroimezkoa eta III. Euskadiko Gazte Kopa jokatuko dira gaur

### LEIRE MONTES

Herria ja giroan murgilduta, atletismo topaketa handia izango da, gaur, Berazubín. III. Euskadiko Gazte Kopa eta Roberto Cabrejasen I. Oroimezkoa jokatuko dira, 16:00etan hasita.

«Hiru urte pasatu dira Roberto Cabrejasen izenaz jarrita, Espainiako laugarren markarik onena da oraindik.

Zenbait atleta esanguratsak hartuko dute parte biharro txapelketan, besteak beste, Ruth Beitia, Marta Mendia, Arrate

antolotzeari ekin genion», azaldu dute Tolosa CFko ordezkariak.

Cabrejasek Moskuko Olinpiadetan hartu zuen parte, 1980an, 1988an, Mundialetan, 37 aldiz izan zen internazionala, eta Espainiako txapelketetan 10 titulu irabazi zituen. Gainera, aire librean bere markarik onena, 2,26 metroko jaurria, Espainiako laugarren markarik onena da oraindik.

Hainbat probak ekin beharko diete parte-hartzaileek: 100 metro, 200 metro, 800 metro, luzera-jaurria, 4x100 erreleboak, eta pisu-jaurritzea —mutilak

Azkona, Gema Martin, Ana Romero eta Laura Mayo; neskeak mutiletan Arturo Ortiz, Ignacio Perez, Ivan Vadillo, Edoira Aranburuzabalza, Bruno Martinez eta Jon Azpiroz.

Bestealde, Euskadiko eta Gipuzkoako Federazioak antolatuta, III. Gazte Kopa jokatuko da bihar ere Berazubín. 17 urte azpiko atletak hartuko dute parte proba honetan.

Hainbat probak ekin beharko diete parte-hartzaileek: 100 metro, 200 metro, 800 metro, luzera-jaurria, 4x100 erreleboak, eta pisu-jaurritzea —mutilak

lauzpabost kilogramo, eta neskek hiruzpaua—.

**Gurpildun aulkiko atletak**  
Hirugarren urte jarraian, gurpildun aulkiko atletak ere parte hartuko dute gaurko atletismo topaketan. III. San Joan Saria jokatuko dute Euskal Herri osotik etortzako atletak.

«Integrazioa» aldarrikatzen duen parte-hartzaileek: «Proba honen helburua atleten artean bereizketarik ez egitea da, hitorzdu honetan denak batera aritzea nahi dugu».

TOLOSA ▶

## Hamar talde lehiatu Enrique Pinedaren orromezkoan

Erreterriako taldeak irabazi zuen; Ibarra eta Tolosa, laugarren eta bosgarren

### L. MONTES

Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako, Iparraldeko, Errioxako (España) eta Asturiaseko (España) xake jokalaririk onenak elkartu zituen, Igan-dean, Enrique Pinedaren orromezko XXVIII. Xake Txapelketak. 10 taldeak hartu zuen parte Zerikusan, jokatutako XXI. San Joan Nazio-arteko honetan.

«Eguraldi kasikarra izan arren, jende asko hurbildu zen txapelketera, batez ere Zerikusi sarreran jarri zen xake erraldioaren Tolosako eskolaren eskainialdiarekin. Xakeak ez du erakarritasunik, azaldu dute Tolosa-Ibarra Xake Elkartekoak.

Gipuzkoako txapelidunak irabazi zuen. Erreterriako Fomento-Berain Bera taldeak, Bigarren Bizkaiko Zortzita taldea izan zen txapelidunaren gainetik oso gertu. Eta Sociedad Ajedrecistica Logroñesa taldea, Errioxako txapeliduna, sailkatu zen hirugarren postuan. Txapelketako ezarritakoak: bihurtako taldeak eman zuten, Ibarra-koak eta Tolosa-koak, «inork espero gabeko» laugarren eta bosgarren sailkatu baitziren. Bestealde, txapelketako jokalarionen saria Zornotzako L.I. Arresek irabazi zuen.

TOLOSA ▶ MAHAI-TENISA

## Giro aparta I. San Joan Mahai-Tenis Txapelketan

30 gaztetxok hartu dute parte; mahai-tenisa sustatzea eta ezagutzera ematea, gakoa



Hainbat parte-hartzaile, lehiatu, Beotibar pilotalekuan. «eta.coucou»

### L. MONTES

I. San Joan Mahai-Tenis Txapelketa jokatuko zen larunbatean Beotibar pilotalekuan. Die giro apartarekin jokatuko da.

Herriko ikasketetako 30 gaztetxok hartu zuen parte, 4 eta 6 jokalariko taldeetan banatuta. Denek denon kontra jokatuko behar zuten, eta multzo bakoitzako lehenak eta bigarrenak mahai-tenisean jokatuko palak eta pilotak jaso zituzten.

Gipuzkoako Federazioak antolatzen zuen txapelketa, Pema Armentia eskualdeko arduradunaren laguntzarekin. «Mahai-tenisa bultzatzea eta ezagutzera ematea izan dute helburu. Izan ere, hitorzduaren gainetik azaldu dira, eta aurrerantzean ere «inork hasi indar-tze eta gasteoak trebatzeko» ahalagintan jarraituko dituela adierazi dute.

### SAILKAPENA ▶

**A multzoa.** 1. Andoni Zumeta; 2. Julen Rokea; 3. Iker Zabala; 4. Xabier Benito; 5. Iker Izar; 6. Moises Garay.  
**B multzoa.** 1. Hugo Irujo; 2. Alberto Limousin; 3. Asier Sarasua; 4. David Garro; 5. Pedro Casas; 6. Mikel Aierbe.  
**C multzoa.** 1. Juan Gil; 2. Julen A. Alberdi; 3. Mattin Belaurazan; 4. Ekaitz Saizar; 5. Aitor Zuzunegui; 6. Javier Zalduendo.  
**D multzoa.** 1. Marta Garcia; 2. Mikel Labaka; 3. Ruben Garcia; 4. Javier Rivero.  
**E multzoa.** 1. Asier Pagola; 2. Haritz Arrieta; 3. Xabier Garmendia; 4. Bitor Fernandez.  
**F multzoa.** 1. Jon Laka; 2. Mikel Arsuaga; 3. Jon Tapiz; 4. Imanol Inurritze.

**Avalon**  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**AROTEGIA**  
ALONSO, C.B.  
ANAIEN  
Iganeko, 11 • TOLOSA  
(Nafarroako Errege Errege) •  
Tel.: 943 67 29 91

**SOLARIUM BERTIKALA**  
Anaiak G. De Harrogo  
P. Gonzalez 23. Ibarra • TOLOSA  
Tel.: 943 67 62 06

**TAPIZERIA**  
Virginia Arriola  
Tapiztutako orokorrean  
Ondo pasa Julekari  
Zuzendakaria: 943 67 29 91

**SUKIA**  
Harategia  
Ondokiko Mendokik  
Luis M. Golkoetxea  
Korreo, 44 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 04 29

okindegia eta gozotegia  
**SANJOANEN ZUZKIN**  
Laskurain, 12  
Tel.: 943 65 16 68  
Tel./fax: 943 65 10 54  
TOLOSA

**KEYLANTZ**  
Zuzenlariak  
Nafarroa errep. 13. Ibarra • TOLOSA  
Nep. 1791 41 79 21  
Tel./fax: 943 65 03 13

**Ekainak 23an zabalduko da**  
Mabatik erreserbatzeko deialdia  
943 65 39 92  
607 991 224

**La Vasconia**  
Sanjoan alaiak opa dizkizuegu  
Korreo, 38 • TOLOSA • Tel.: 943 67 05 28

Gozotegia eta okindegia  
**ECEIZA**  
Teilak eta Zigarriloak  
Pablo Gonzalez, 34 • Tel.: 943 68 01 01 • San Francisco, 8 • Tel.: 943 68 19 06 • TOLOSA

**Cafe Irriña**  
Sanjoanek ondo pasat  
Pintxoak eta plater konbinatuak  
Zuzendakaria: 943 67 05 29

**Exenarro**  
Zure leihoak gurcien  
Leho isolagarriak • PVC  
Haustura aluminioa •  
Egur arrotzintza  
San Francisco, 26 • Ibarra  
20400 TOLOSA • Tel.: 943 11 85 36  
Fax: 943 11 84 53

**Golei**  
Korreo, 11 (Ibarra) • TOLOSA • Tel.: 943 67 29 16

• Andregaitzen arrazteak  
• Multiplaza  
• Duplekua eta gimnezakuntza  
Sanjoanek ondo pasat

**Arrostegia 17 - 1**  
20400 TOLOSA • Tel.: 943 67 46 53

**HARATEGIA URDAITEGIA**  
ondo pasa sanjoanetan!  
Oria kalea, 8 • TOLOSA • Tel.: 943 65 17 81  
Hospal Kalea, 1 • ANOETA • Tel.: 943 65 61 65

**ALDAMA CARPA**

**Mertzaria eta konponketak**  
Ondo pasa sanjoanetan!  
Zumalakarregi, 2/g • Tolosa  
Tel.: 943 65 25 78

**ZYMETA JATETXEA**  
Olasagasti anai-arrebak  
Agintaria, 9 • TOLOSA • Tel.: 943 67 28 78

**ZYMETA JATETXEA**  
Olasagasti anai-arrebak  
Agintaria, 9 • TOLOSA • Tel.: 943 67 28 78

**IGOKI**  
Pintxoak  
Ondokiko Mendokik  
Plater konbinatuak  
Gorostegi kalea, 20 • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 65 45 63

GUTUN@K ▶



## Herriko jaietan gertatutakoan aurrean salaketa

Lehen-lehenengo, nire agurrik beroena anoetar guztioi, denok aurtengo herriko jai hauek ondo pasatuko zenituztela espero dudalako; eta eskerririk asko bihotz-bihotzez jai hauek bisitatu gaituzuen guztioi ere.

Eta dagoeneko jaien bukaerara iritsi garen honetan —23ko sua eta San Joan eguna besterik ez baitzaizkigu falta— aurten gertatu diren zenbait gorabeheraren berri Anoetako herriari esplikatu beharrean gaudela iruditzen zait.

Honezkerok denok jakingo duzue, jai ofizialez gainera jai alternatiboak ere izan ditugu aurten.

Ahalegin guztiak egin ditugu hasieratik bertatik denok herriko jai bateratu eta bakarrak

izan genituzan, ekitaldi eta ideia guztiak egitarau bat bakarrean biltzeko asmoarekin. Aurreko urteetan ere egin izan den bezalaxe, alegia, interesatuta zeuden herritar guztiak atek zabalik jokatzu Jai Batzordearen bileren bitartez.

Baina aurten ezin iritsi izan gara konponbide batera, zenbait postura eta planteamendu itxi baino itxiagok hartarako bide oro oztopatzen zuelako.

Lehen unetik hasi ziren Jai Batzordearen bilerak hanka-trabatzan, eta gero beren setan okerrera jo baino ez zuten egin, hainbat trikimaillu eta zapokeria tarteko txosnak kostatzen zirela. Hainbat trikimaillu eta zapokeria tarteko txosnak kostatzen zirela. Hainbat trikimaillu eta zapokeria tarteko txosnak kostatzen zirela.

Leku hori, gure ustez, ego-kiagoa da neskato-mutikoen jolastokirako, bere barraka eta guzti. Hain zuzen ere, urterten bateko ezinbesteko arazoien-gatik izan ezik (egiten ari ziren obrak, etab.), gainerakoetan

hor ipini izan dira beti barrakak, eta haiek ere erabat onartu izan dute hori aurten arte.

Are gehiago: bilera batean iritsi ziren. Udalak baimena ematen ez baldin bazien, kostatzen zirela leku horretan muntatzeko mehatxua egitera ere.

Beste lekuren batean ipintzeko aukera ere aipatu genuen, baina horiek ezeko biritzuztekin erantzun diote beti proposamen orori.

Azkenean, ipin zitezkeen hainbat leku aztertu ondoren, denetan egokiena Igarabide kalea (San Joan eta Idiakaitz arteko zatia) izango zela iruditu zitzaigun.

Jarrera erabat setatiarekin, ordea, eskuartearen izan dituzten balibide guztiak erabili dituzte herriko jaiak —betiko jaiak— hankatrabatu eta eragozteko, antolatuta zeuden jardueretan parte hartzeko prest zegoen jendeari deialde eta era guztietako presioak eginez, edota ez parte hartzera behar-

tzen edo «konbentzitzen» saiatuz.

Jaien aurre-aurreko egun eta orduetan bertan, festen inguruko propagandako kartelak erretiratu, herri kirolak egiteko behar zen materiala lapurtu edo ezkutatzeraino iritsi ziren; plazako giro musika behin eta berriz kentzeraino; udal lokal bat inolako baimenik gabe beren jarduerara pribatuetarako erabiltzeraino; erraldoi eta buruhandiek erabiltzen den materiala lapurtzeraino...

Ekainaren 12ko egunsentian, alkateak eta zinegotzi batzuek hitzeko eraso bortitza jasan behar izan genuen, haiek berek txosnak zeuden lekuan 02:30ak aldera argindarraren instalazioa gaizki erabiltzearen ondorioz sortutako intzidentea batengatik. Izan ere, beren soinu ekipoen konexioak gaizki muntatuta zeuzkatelako, argindarra etenda geratu baitziren, Iberdrolaren erregistro-kaxakoa fusible bat erreta.

Pertsona batzuek ondo baino hobeto aprobetxatu zuten gorabehera hori udalbatzako kideei erasotzeko.

Herri honetako udalbatza osatzen dugunok jende guztia- ren aurrean salatu nahi dugu talde batzuen «indarrean» babestuz horrela jokatzan duten pertsonen jarrera, eta gure indar guztiarekin salatu ere horrelako portaerak eta manipulazioak.

Eta begirune eta errespetu faltaz hitz egingo dute gero!

Nork galdu dio hemen errespetua nori?

Gauzak horrela, udalbatza honek, aurtengo jaietan sortu den giroa dela-eta, San Joan zortzikoa ez dantzatzeko erabakia hartu du; baina, hala ere, sua piztuko dugu eta San Joan martxa abestu ere bai denon artean.

Ea su horrek elkarrengandik urrutitzeko ez, baina elkargatatzeko balio izaten digun.

ANOETAKO UDAL KORPORAZIOA

VILLABONA ▶ EUSKARA

# Euskararen erabilerak beherantz egin du azken urteetan

Gazteen %68ak egiten du euskaraz, haurren erabilera %53koa da eta helduen %27ak hitz egiten du euskaraz

GARAZI AZKUE

Pasa den urtearen bukaeran burutu zuen euskararen kale neurketa Sei Euskara Elkarteak. Kalean euskara zenbat erabiltzen den eta nork erabiltzen duen neurtu zuen Villabonako kaleetan.

Orain, emaitzak plazaratu dituzte. Kalean, euskara, %39,5ak baino ez du erabiltzen herrian. 2001 urtea eta 2003 urtea bitartean, beherantzko joera izan du erabilerak, 12 puntu jaitsi da azken biurtekoan horietan.

Azokan gutxien

Villabonako zonaldeka aztertuz gero, azokan jaso dute erabilera maila baxuena gainontzeko herriko ibilbideekin alderatuta, %34a. Dena dela, 2001 urtean egindako neurketan aldean «dezentzia handiagoa» zela argitu dute.

Villabonan gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, %68ak egiten du euskaraz. Haurren erabilera, berriz, gaztearen azpitik ageri da, %53. Hala ere, euskara kalean gutxien erabiltzen dutenak helduak eta adinekoak dira, %27ak hitz egiten du euskaraz.

Euskararen bilakaera

Bilakaerari dagokionez, 2003ko neurketa honetan beherakada samatu du Sei elkarteak, gazteetan izan ezik.

Haurren atalean jaitziera «kezka» izan dela aipatu dute, 27 puntu jaitsi baita; eta jaitzieren abiadura ere azkartu egin da azken urteetan.

Gazteen sailean, hazkundera mantendu da azken urteetan; azken neurketako igoera nabarmena da. Helduetan, berriz, beherantzko joera ikusi dute biurtekoan, eta, adinekoetan, beherantzko joera hartu du.

Haurren presentziak euskararen erabilera hazi egiten du gehienetan, baina presentzia soilak ez du eraginik nagusien erabileran. Haurrak daudenean, euskaraz hitz egiten dutenak %48,3a dira; haurrak ez daudenean, berriz, %40,2ak egiten du euskaraz. Haurrak beraiekin artean hitz egitekoan edota nagusiekin harremanetan bai igotzen da erabileraren portzentaia.

Datorren urteetan

Orain lortu dituzten emaitzekin, datozen urteetako bilakaeraren batzbesteko datuak ere plazaratu dituzte Sei Kultur Elkarteak. Villabonan, 2001 urtean 3.698 euskaldun baziren (%67,5), 2007 urtean 3.956 euskaldun egongo direla aurrirakusten dute (%68,5) eta 2.014 urtean, berriz, 4.280 izango dira euskaldunak (%69,8).

ZIZURKIL ▶

## Igandeko Segala Txapelketan eskualdekorik ez

Zizurkilan izan zen igandean Gipuzkoako Segalar Txapelketako bigarren sailkapena. Lau segalaritik bik lortu dute finalerako txartela. Eskualdeko segalariek ez dute zortetik izan oraingoan. Mitxelena eta Navarro sailkatu dira finalerako, eta, Aranalde, Dorronsoro eta Etxeberria Gipuzkoako txapelketatik kanpora gelditu dira. Finala uztailean izango da Larraitzen.

VILLABONA ▶


## Etxeberriak 12 kilo galdu ditu jada

Lander Etxeberria billabonatar presoak gose greban jarraitzen du bere entrega arriskua dela-eta. Dagoeneko 23 egun daramatza barrualdian eta 12 kilo galdu ditu. Ramontxo Naveiro Draguingnango (Frantzia) kartzelan dagoen beste euskal presoak ere gose greban hasi da Etxeberriari eta senideei elkartasuna adierazteko. Bestalde, sinadura bilketarekin jarraitzen dute billabonatarrek; dagoeneko 2.300 sinadura bildu dituzte. Sinadura horiek guztiak, Villabonako Udalak konpultsatuta, Frantziako hainbat ministeriatarara bidali dira, Etxeberriaren askatasuna eskatuz.

IRURRA ▶

## Goiza pasa-ko bilera gaur liburutegian

Goiza pasa, Irurako Udalak antolatutako udaleku irekietako bilera izango dute gaur gurasoek. Izena eman duten haurren gurasoak bilduko dira gaur, udalekuen programaren berri izan dezaten. Irurako liburutegian bilduko dira 19:00etatik aurrera. Udalekuak datorren astelehenean hasiko dira, eta uztailearen 30a arte luzatuko dira gaztetxoen zantza.



Lander Etxeberria. HITZA

**IBARRA ▶**

**Ordutegi aldaketa Kultur Etxean eta liburutegian**

Ibarrako Udal Kultura eta Gazteria Sailak aste honetako aurrera Kultur Etxea eta liburutegia udarako ordutegira egokitzen dela jakinarazi du. Hala, joan den astelehenaz geroztik eta uztailaren 30a arte, udal liburutegiaren ordutegi berria 09:30etik 13:30era izango da, eta Kultur Etxekoa, berriz, 09:00etatik 14:00etara. Abuztuan, berriz, udal liburutegia eta Kultur Etxea itxita izango dira, eta irailean zabalduko dituzte berriro atek.

**BERASTEGI ▶**

**Bazkaria eskulan ikastaroan aritutakoentzat**

2003-04ean Gaztainondo jubilatuek elkartearen izandako eskulan ikastaroari amaiera emateko, bazkari bat antolatu da bertan aritutako irakasle eta ikasleentzat. Bazkari hori, Gaztainondoko egoitzan izango da gaur eguerdian. Horrez gain, ikasleek irakasleen laguntzaz egindako lanen erakusketa izango da ikusgai bihurtik astelehen bitarte Gaztainondoko egoitzan. Erakusketa hori, 16:00etatik 19:30ak arte egongo da zabalik.

**LEITZALDEA ▶ UDALA**



Aresoko Udaleko langile izanen da albintea. JAIONE ASTIBIA

**TOLOSA ▶**

**Jubilatuen Egoitzakoen kontzentrazioa**

Euskal Herriko plazako Jubilatuen Egoitzako langileek Diputazioak zerbitzua merketu nahi duela salatuzko kontzentrazioa egingo dute gaur Trianguloan 19:00etatik aurrera. Egoitzako langileak haserre eta harriritu daude Foru Aldundiaren jarrerarekin eta lantokian izango dituzten aldaketekin. Langileek esandakoaren arabera, sindikatuen bidez jaso dute informazioa, eta Aldundiak ez die ezer esan. «Langileek ez dugu izango ez leku ez epe finkorik gure lanean; gainera, gurean ezin izango du inork gehiago sartu; eta, bestalde, zentroan lanean ari diren hainbat enpresaren betebeharrak lehiaketara ateratu dituzte. Langileek eta zentroan senitartekoak dituztenek informazioa behar dugu; hori da gure eskaera» Maiatzaren 22an ere Euskal Herria plazan informazioa banatu zuten jendartearen.

**TOLOSA ▶**

**Et incarnatus orkestraren kontzertua**

Urkizutik gertu, Mendikute ondoan, antenara doan errepidearen bukaeran, Et incarnatus orkestraren kontzertua izango da ostiralean 19:30etik aurrera. Aurten, 5. solstizio kontzertua eskainiko dute. Besteak beste, orkestrak eskainiko dituen abestiak honakoak izango dira: *Habanerarekin jolasean*, *Sermon on the mounth*, *Tristeza*, *Pello ziri-ziri*, *Lawra r Ffrancod Medley caerfadeion*, *Nac juun*, *Vem Kan segla*.

**ALEGIA ▶**

**Jubilatuen bazkarirako izen-ematea zabalik**

Igandean, ekainaren 27an, egingo dute herriko jubilatuek eta pentsiodunek urtero egin ohi duten bazkaria; Kriol-Kultur Etxean bilduko dira bazkaltzeko, 14:15ak inguruan. Bazkarira joateko izena eman behar da Jubilatuen elkartearen 11:00etatik 12:00etara bitartean; izena emateko azken eguna bihar, osteguna, izango da. Bazkariaren aurretik, 11:15ean, meza nagusia izango da, beti bezala.

**ELDUAIN ▶**

**Lehen sorospenak hizpide ostiralean**

Osasunaren inguruko gaietan informazioa eta prestakuntza emateko asmoz, Kutxak *Osasun ikasgelak* izeneko jardunaldi praktikoa batzuk antolatu ditu aurten. Jardunaldi horiek doakoak dira, eta eguneroko bizitzarako ohitura eta praktika osasuntsuak ezartzeko baliagarriak dira. Ostiralean, bigarren jardunaldia egingo da Urdelar biltokian, 17:30etik aurrera. Lehen sorospenei buruz hitz egingo dute bertan, eta sor litezkeen oinarritzko larrialdi jakin batzuetan modu egokian erreakzionatu ahal izateko jarraibide bat ezagutzera ematea da helburua. Sukarra, lipotimia, eroriko, edota odol jario batean aurrean nola jokatu azalduko dute. Saiok ordu eta erdi iraungo du.

**Udal langile berriak bi udaletan**

**Leitzan udal idazkaritarako oposaketa -lehiaketa eta Areson albinte berria**

**JAIONE ASTIBIA**

Leitzaldeko bi herrietako udaletan aldatetako izanen dira, langilegoan

Leitzari dagokionez, udal idazkaria ordezkatzeko lehiaketa oposaketa egiteko bidean dira. Froga hauetan parte hartu ahal izateko izena emateko epea atzo bertan, astearte, bukatu zen, eguerdian, eta sei lagunek eman dute izena, jakitera eman dutenez, emakumezkoak guztiak ere.

Eta frogak, beraz, bihar bertan hasiko omen dira, Leitzako liburutegian, euskararen gainezkoarekin. Hau EGA edo paretorik ez duten hautagaiek egin beharko omen dute eta gaitzitzen duten jarraitu ahalgo omen dute lehiaketarekin. Beste bi frogak, hil honen 28an eta hurrengoaren 5ean burutuko dituzte.

Lehiaketa oposaketa hau ateratzen duen langileak segituan ekinen dio lanari, festa aurrerako eta lau hilabetez ariko da horretan.

**Albinte berria**

Areson, berriz, Xabier Nieto izanen da herriko albinte berria aurrerantzean, hori hautatzeko egin ziren frogak gaitzitu eta gero.

Zerbitzu anitzetako langilea deitzen zaion lanpostua bete-

tzeko, bi froga egin behar izan zituzten izangaiek, egun bane-tan, bata teorikoa eta bestea praktikoa. Bost lagunek eman zuten izena eta lehiaketan parte hartu zutenetik bi, herrian bertako biztanleak direla jakin du HITZAK.

Froga guztiak bukatu eta gaitzitu zituena Nieto bera izan omen zenez, lanpostua berea izanen da aurrerantzean.

Aipatu lanpostu honek egunerdiko lana omen du eta bere eginkizuna herri lanetan jardutea izanen omen du, beti ere udalaren langilegoko partaide izanik.

Langile berri horren izendapena, hurrengo udal batzarrean egingen omen dute, adituzera eman dutenez.



Leitzako frogen lekua. J. ASTIBIA

**TELEFONOAK ▶**

**LARRIALDIAK**

**▶ 112**

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarralde.** Osasun etx: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
  - ▶ San Esteban: 00 68 00
  - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
  - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
  - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
  - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aitzondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aitzondo zerb: 693930

**GARRAIOAK**

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20

**KOMUNIKABIDEAK**

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Tipi itapa ald.: 948 631888

**EUSKALTEGIAK**

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

**GUARDIAKO FARMAZIA**

**Gaur.** Queiglas, Euskal Herria, 46, (Ibarr), 943 67 32 74. Gimeno A, Elbarren, 52, (Leitza). 112.

**TOLOSALDEKO HITZA**

**Publizitate.** 661 67 88 18. tolosaldean\_publi@tolosaldeko hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldeko hitza.info  
**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22. villabona\_aitzondo@tolosaldeko hitza.info  
**Anoeta.** 687 41 00 22 anoeta@tolosaldeko hitza.info  
**Ibarralde.** 687 41 00 32. ibarralde@tolosaldeko hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko hitza.info  
**Leitzalde.** 687 41 01 18. leitzalde@tolosaldeko hitza.info

**iragarki laburrak ▶**

**LANA**

**Klase partikularrak emateko edo umeak zaintzeko.** Neska bat eskaintzen da udan klase partikularrak emateko (DBH mailara arte) edo umeak zaintzeko. 665 74 62 79.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko ekainaren 23a, asteazkena ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Albitur, Aiegia, Aizta, Alzo, Amesketa, Aneta, Baleran, Berasteg, Edoain, Hernalde, Ibarra, Inara, Larnai, Leizbura, Lizartza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zuzurki

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurkitza.  
Kultura Saila

943 30 43 46

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

24

hotzena

17

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Berastegi.** Gaztainondo jubilatuko elkarteko eskulan ikastaroaren amaierako bazkaria. Egoitzan bertan. Bihartik astelehenera eskularen erakusketa.

**Bidanía.** Aurrera-Saiaz taldeko eskolar mailako pilotarien merienda izango da, bihar 19:00etan Saiaz elkartean.

**Irura.** Goiza pasa udaleku irekien gurasoen bilera 19:00etan liburutegian.

**Tolosa.** Jubilatuen Egoitzako langileen kontzentrazioa Triangulon 19:00etan bere egoera salatzen.

**Tolosa.** Biharko errektoriaren sarirako eta igandeko zezen korridarako sarrerak salgai Triangulo, Asteasuarra, 66 eta Orue tabernetan eta 617 51 35 42 telefonon.

### AURKITUAKO

**Lizartza.** Ezkontzako eratzun bat aurkitu dute Insalus fabrikaren inguruan. Udaletxean jaso daiteke (943 670700).

### ERAKUSKETAK

**Tolosa.** Kultur Etxeko tailerretako ikasleen lanak Aranburu Jauregian. Uztailaren 3 arte.

**Tolosa.** Maria Carmen Gorbea margolari donostiarraren koadroak Saikin tabernan. Hilaren amaiera arte.

**Tolosa.** Charo Berra pintore tolosarraren margolanak Lanbroa tabernan hilaren amaiera arte.

**Tolosa.** Uztailak 3a bitarte ikusgai dira Aranburu Jauregian Faustino Aranzabalen margolanak. Asteartetik larunbatera 17:30etik 20:30era.

## ZORION AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Amona Piatxo.  
Iloba guztien  
partetik.



Marraskilo zikloturista taldeko kide ugari izan zen. LEIRE MONTES



Ibartar ugari ikus zitekeen Quebrantahuesos proban. LEIRE MONTES

# Bizikleta gaineko heroiak

**SABIÑANIGO ▶** Larunbatean egin zen Quebrantahuesos zikloturista proba gogorra; Abraham Olano omendu zuten eta eskualdeko partaide asko izan zen



Koldo Arsuaga tolosarra Portalet mendatea igotzen, tropeltxo baten buru. LEIRE MONTES



Lizartzako ordetzarritza ere ikus zitekeen proba gogor eta ospetsu honetan. LEIRE MONTES

JOXEMI SAIZAR

Urte osoan horren zain, kilometroak eta kilometroak egiten, gorputza prestatzen, aritu ondoren joan zen larunbatean iritsi zitzaizen eguna: Quebrantahuesos zikloturista proba gogor eta ospetsuarena. Sabiñanigotik (Huesca) atera eta 205 kilometro burutzea zen lana, Somport (1.640 m), Marie Blanche (1.035 m) eta Portalet (1.795 m) mendate handiak gaindituz Sabiñanigora itzuli aurretik.

Izena ematen 4.903 txirringulari ausart. Helmugan 4.648 heroi. Azkarrenak sei ordu inguru behar izan zuten. Gehientzuenak zazpi-zortzi inguruan. Motelenak hamar ordutik gora. Hamabi orduko muga zuten.

Parte-hartzaile horien arteko nazionalitate askotakoak zeuden, baina euskaldunak nagusi. Eta horien artean eskualdeko hainbat eta hainbat: Tolosa, Ibarra, Lizartza... eta beste hainbat herritakoak ikus zitekeen. Inguruko zikloturista taldeetako kideak ez dira falta izan azken edizioetan. Horretarako aritzen dira prestatzen.

Edelweis txirringulari penak antolatutako proba herrikoi honen XIV. edizioa izan zen eta berrikuntza gisa beste proba errazagoa eratu zuten aurten: Treparriscos izenekoa, 90 kilometro eta 965 metroko desnibela, *bestetik* ez.

Eskualdeko beste protagonista bat ere izan zen: Abraham Olano. Urtero omentzen dute goi mailako txirringulari bat eta aurten anoetarrari egokitu zaio.